

Jose Inazio Basterretxea

Pozoia



san ohi denez, ez du beti hiltzen pozoiak, neurrian administratzen jakinez gero. Era askotakoak daude: solidoak, likidoak eta gaseosoak. Organismo batean, asaldura larriak eragin ohi dituen substantzia toxikoa da pozoia.

Artseniko zuria, uretako astaperrexila, lupu beltza edo antraxa, estriknina... Tokikatu, gaixotu eta, deskuidoan, akabatu egiten duten substantziak dira horiek. Bere bidea egiten du pozoia bakoitzak, propio berea, eritasunetik heriotzaraino.

GAROÑA. Itxi behar zutela, baina ez dute itxi: “Ay, si, si! Ay, no, no! Markeroliño marketxuleta marketxo txuriano...” Agintariak diotenez, denon hobe beharrez mantentzen dute zabalik eta martxan. Pozoia zerbitzatu digute, zilarrezko plateretan bada ere.

Pozoi aktiboa da Garoñakoa. Pozoi politikoa. Gezurraren pozoia. Energia-ekoizle diren enpresa ahaltsuen pozoia esanguratsua, geure buruetara tanta-ka isuria.

Ez dute ezertarako balio izan ekologisten protestek. Ezta politiko batzuenak edo herri-administrazioen izenean mintzatu diren hautetsienek ere. Ez du balio izan, herritar askoren ahotsak. Ezta milaka manifestazio egiteak ere. Pozoia, beti pozoia.

GORBEIA. Mendi enblematikoa pozoitzen ahalegindu dira: “Gorbeia larrean, aker bat dago erdian, atso herrena dabil bere aurrean dantzan” kantatu izan dugu umetan, gurutzera ailegatu izan garenean, Arratia sakonetik hurbilduta edo Mairulegorreta iradokitzailetik. Edo Orozkotik. Edo Barazarretik. Edo...

Aker, atso, lami, basajaun eta era guztietako izpirituak uxatu dituzte militar espainiarrek Gorbeiatik. Derrepentean. Piperpotoa administratu diete denei eta gurutzera prezintatu.

Konstituzio hitza ahoan ailegatu dira militarrek. Bakean dagoenari, bakean utzi



INIGO AZKONA

behar zaio. Baina, batzuek ez jakin hori. Metroka ehundutako bandera triste hori ezarri digute han, Euskal Herriko paisai ederrenetakoa duen gailurrean. Ortziazen muga besterik onartzen ez duen amestoki ederra pozoitu gura izan dute.

MUGAREN MUGAK. “Zenbat gara? Lau, bat, hiru, bost, zazpi?”. Eguraldiaren eta giroaren azalpena egiteko, esatariek erabiltzen dituzten telebista-mapa horietara ere heldu da alkaloide suntsitzaile bat. Lardaska sinboliko berria.

Euskal Herriaren forma-aniztasun beti eztabaidatuaren baitan, orain beste bariante bat erakutsi digute ETBn. Hirurak-bat, laurak-bat, zazpiak-bat, seiak-bat... ezagunak genituen mapa horiek guztiak euskararen herriaren mapa marraztu gura genuenean, Euskal Herria irudikatu gura genuenean.

Orain, sorgin ilunen alkimia politikoak hala eskatuta, inongo abertzalek pretenditzen ez dituen lurraldeak erantsi dizkio- te Euskal Herri telebisatuari: Biarno, Errioxa, Burgos...

Geografia ikas dezagun egingo dute, seguru asko.

ARROSAREN IZENA. Umberto Ecoren nobela horrekin akordatu naiz. Ecoren eleberri famatuan, rol garrantzitsua betetzen zuen pozoiak. Baita gezurrak ere.

XIV. mendeko eztabaida erlijioso nahasietan giroturik, Alpeetako abadia batean gertatutako zenbait heriotza ilun kontatzen ditu idazleak. Eleberri horretan, fikzio horretan, bibliofagiak akabatu zuen abadia horretako Jorge de Burgos fraide itsua, liburuzain zaharra, Aristotelesen *Poetika* denen begietatik ezkutatu nahi zuena.

Eleberriak azaltzen duenez, arrastoa uzten du beti gezurrak. Baita pozoiak ere. Gogoratu fraide haren lorde urdina, inork ez irakurtzeko, Aristotelesen liburua jan zuenean, pozoia eta guzti.

XXI. mendean bizi gara. Baina akordatu, nobela horrekin akordatu naiz. ■

Arrosaren izena.

Umberto Ecoren nobela horrekin akordatu naiz. Ecoren eleberri famatuan, rol garrantzitsua betetzen zuen pozoiak.

Baita gezurrak ere